


Euskal AEko industria-prezioek % 0,2 egin dute behera 2017ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean

Aurreko urtearen aldean (2017ko ekainean 2016ko ekainaren aldean), % 2,3 egin dute gora

Euskal AEko industria-prezioek % 0,2 egin dute behera 2017ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean, EUSTATEN datuen arabera. Datu horietan oinarrituta, ekaineko urte arteko tasak -azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du- % 2,3 egin du gora.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi sektorial xehatuenak agerian uzten du 2017ko ekainean aurreko hilabetearen aldean adarrik inflazionistenak honako hauek izan direla: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza*, % 2,1eko gorakadarekin; *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua*, % 0,8koarekin eta *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa*, % 0,7koarekin. Ordea, prezioetan beherakadarik handienak honako sektore hauek izan dituzte: *Kokeriak eta petrolio fintzea* (% 4,0ko beherakada) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 0,2ko beherakada prezioetan).

Destino ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, aurreko hilabetearen aldean, *Tarteko ondasunek* eta *Ekipo-ondasunek* gorakada izan dute prezioetan, % 0,1ekoa bi kasuetan, eta *Energian*, prezioek % 1,7ko beherakada izan dute. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 0,4 egin dute gora, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen gorakadaren (% 0,5 egin dute gora) ondorioz; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* ez dute aldakuntzarik izan (% 0,0).

Urte arteko aldirian, 2017ko ekainean 2016ko ekainaren aldean, prezioen gorakada handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolio fintzea* (% 8,0koa), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 5,0) eta *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* (% 3,3). Beherakada handienak honako sektore hauetako prezioek izan dute: *Erauzketa-industriak* (% 2,0 egin dute behera), *Kautxua, plastikoa eta ez-metalezko beste produktu mineralak* (% 1,9 egin dute behera) eta *Industria kimikoa* (% 1,0 egin du behera).

Ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldirian positiboa izan da horientzat guztientzat: *Energian* % 5,1eko tasara egin dute gora, *Tarteko ondasunetan*, % 2,4, *Ekipo-ondasunetan* % 1,4 eta *Kontsumo-ondasunetan* % 1,2. Azken horien artean, % 1,0 egin dute gora *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 1,2.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2017ko ekaina

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2017eka / 2017mai	2017eka / 2016eka	2017eka / 2016abe
INDIZE OROKORRA	105,3	-0,2	2,3	0,4
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	89,5	0,1	-2,0	-2,9
Manufaktura-industria	103,4	-0,3	2,4	0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	120,1	0,8	1,4	0,4
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	105,8	0,4	1,2	-0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrek	100,3	0,0	1,0	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	107,7	0,5	1,2	-0,4
Ekipo-ondasunak	106,6	0,1	1,4	1,1
Bitarteko ondasunak	104,5	0,1	2,4	2,7
Energia	102,2	-1,7	5,1	-5,0

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62